



(H)ABIAN

GIZARTE ERALDAKETARAKO
HEZKUNTZAREN ESTRATEGIA

ESTRATEGIA DE EDUCACIÓN PARA
LA TRANSFORMACIÓN SOCIAL

Aurkibidea

0. Aurkezpena	4
1. Prozesuaren ibilbidea	7
2. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (GEH) aurrekariak eta kontzeptua	11
2.1. Testuinguruko zenbait elementu	12
2.2. Iraganera begiratzea oraina ulertu eta etorkizuna bideratzeko	14
2.2.1. Arau- eta erreferentzia-esparrua	15
2.2.2. GHren historia. Bost belaunaldiak	17
2.2.3. GHtik GEHrako trantsizioaren elementuak	18
i. Tokiko-global ikuspegia	19
ii. Ikuspegi politiko-pedagogikoak eta haien aplikazio praktikoa	20
iii. Subjektu eta agenteen aniztasuna	21
iv. Sareko lan egituratua	22
3. (H)ABIAN 2030 estrategiaren esku-hartze esparrua	24
3.1. GEH (H)ABIAN 2030 estrategian	27
3.2. 6 indar-ideia orientagarriak	30
1. Herritartasun global jasangarri eta ekitatiboaren alternatibak lortu nahi dituzten eta eratzten dituzten subjektuei laguntzea	31
2. GEHren ikuspegi politiko-pedagogikoak txerta daitezen sustatzea eta indartzea	31
3. Eskubideen ikuspegia txerta dadin sustatzea eta indartzea	32
4. Tokiko-global ikuspegia txerta dadin sustatzea eta indartzea	32
5. Agente guztien arteko erantzunkidetasuna sustatzea, batik bat, erakunde publikoena	33
6. Etengabeko ikaskuntza izatea erreferentzia	34
3.3. Lortu nahi ditugun 16 aldaketak	35
4. (H)ABIAN 2030 estrategia hedatzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea	37
4.1.(H)ABIAN 2030 estrategia hedatzea	38
4.2. Jarraipena eta ebaluazioa	39
1. eranskina. Atxikimendua. (H)ABIAN 2030 estrategiarekin hartutako 8 konpromisoak	41

Akronimoak

EAE:

Euskal Autonomia Erkidegoa

GEH:

Gizarte Eraldaketarako hezkuntza

GGKE:

Garapenerako gobernuz kanpoko erakundea

GH:

Garapenerako Hezkuntza

GIH:

Garapen Iraunkorrerako Helburuak

GLEA:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

GTE:

Gogoeta talde espezifikoa

HGH:

Herritartasun globalerako hezkuntza

Unesco:

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea



Aurkezpena

(H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren (GEH) euskal Estrategia da. GEH Garapenerako Hezkuntzaren (GH) ondorengo estrategia da zuzenean. GH, nolahi ere, erakunde publikoek bultzatu dute hainbat hamarkadatan, honako hauek sustatzeko: (i) planetako justiziarik ezaz eta desparekotasunaz jabetuta egongo diren herritar kritikoak; eta (ii) aldaketa indibidualak eta kolektiboak sortuko dituzten jardunbide ekitatibo eta solidarioak. Azken hamarkadetan egindako ibilbidea aberasgarria izan da eta ikasteko aukera asko eman ditu. Eskerrak eman nahi dizkiegu ibilbide horretan protagonistak izan direnei. Haien artean, honako hauek aipatuko ditugu: GGKEak, hezkuntza-komunitateak, unibertsitateak, Berritzeguneak, emakumeen erakundeak eta erakunde feministak, astialdiko erakundeak, migrazioari lotutako erakundeak, ekonomia sozial eta solidarioa, bidezko merkataritza, ekologistak, komunikabideak, gizarte-mugimenduak eta beste erakunde eta pertsona batzuk. GEHren bidez, GH eguneratu eta egungo egoerak planteatzen dituen erronkei erantzun nahi zaie.

(H)ABIAN 2030: habia eta abian. Habiaren metafora erabili dugu, animalia batzuek sortzeko (eta elkarrekin sortzeko) eta ideiek, proposamenei eta ekintzek hegan egiteko lekua baita. Halaber, izenak berak abian jarri beharra aipatzen digu, eta logoan elkarri lotuta agertzen diren zirkuluek, berriz, Estrategia hau bultzatu duten eta Estrategia honetatik abiatuta bultzatu nahi diren parte hartzeko prozesuei lotutako mugimendua eta bilakaera islatzen dute.

(H)ABIAN 2030 Estrategiak lortu beharreko orientazio bat eta hainbat aldaketa planteatzen ditu, eta hainbat eragile, subjektu eta agentek egin ditzakete haiek lortzeko ekarpenak, bakoitzak bere eremuan. Proposamen inspiratzailea da eta, zenbait alderditan, abstraktua ere bai. **(H)ABIAN 2030** estrategiak datozen urteetarako planteatzen duen erronka jardunbide zehatzen bidez GEH zer den zehaztea da. **(H)ABIAN 2030** estrategiak errealitatea aldatu eta eralda daitekeelako itxaropena helarazten du, eta gu ere aldatu eta eraldatu egiten gara prozesuan. Horretarako, zalantzarik gabe, estrategia hau gauzatzeko baliabideak ahalbidetuko dituen konpromiso bat behar da gizartearen eta erakundearen aldetik. Estrategia, nolahi ere, eragile bakoitzak sustatuko dituen proposamen, politika, estrategia, ekintza eta tresna batzuetan zehaztu beharko da.

Izan ere, **(H)ABIAN 2030** estrategia sortzeko, agenteen gogoeta bateratu behar izan da, eta GEHren prozesuetan aurrera egiten jarraitzeko konpromisoak eta nahiak hezurramitu behar izan dira. Horretarako, ibilbide bat garatu dugu, eta lehenengo kapituluak dago deskribatuta.

GEHren aurrekariak eta kontzeptua bigarren kapituluak daude jasota. Kapitulu horretan, gainera, GHren eta GEHren arteko trantsizioaren egungo testuinguruaren azterketa, arau-esparrua, historia eta funtsezko elementuak azpimarratzen dira.

GEH **(H)ABIAN 2030** estrategian txertatzeko lana, 6 indar-ideiak eta lortu nahi diren 16 aldaketak dira strategiaren erreferentziak, eta strategiaren lanaren gune gisa dihardute. Aldaketa eta ideia horiek hirugarren kapituluak lantzen dira.

(H)ABIAN 2030 strategiaren zabalkundea, jarraipena eta ebaluazioa funtsezkoak dira estrategia garatzeko (atxikitako pertsonen parte-hartzearekin). Horiek guztiak laugarren kapituluak aipatzen dira.

Azkenik, eranskinean **(H)ABIAN 2030** strategiari atxikitzeko proposamena dago, eta strategiarekin bat egiten duenak bere gain hartzen dituen konpromisoak daude zehaztuta.

(H)ABIAN 2030 estrategia gonbidapen eta gida bat da, euskal erakunde publikoek, GGKEek eta beste askotariko erakunde eta mugimendu batzuek gizartea eraldatzen lagunduko duten

hezkuntza-prozesuetarako ekarpenak egin ditzaten. Gizarte-eraldaketa horretan, giza eskubideak, bidezko botere-harremanak, tokikoa denaren eta globala denaren arteko lotura eta naturaren zaintza errealitate izango dira elkarren mendeko mundu globalizatu honetan. Eskerrak eman nahi dizkiegu Estrategia hau gauzatzen lagundu duten pertsona, entitate eta erakunde guztiei beren parte-hartze eta inplikazioagatik, eta inplikatzeko eta Estrategia amestu bezala garatzea ahalbidetzen jarraitzera animatzen ditugu.



Prozesuaren ibilbidea



(H)ABIAN 2030 Estrategia diseinatzeko prozesua bideratu duten hiru ezaugarriak imajinatzea, elkarrizketan jardutea eta eraikitzea izan dira. Prozesu horretan, **GEHren hainbat agentek 2017tik 2030era arte eraiki nahi den errealitatea identifikatu dute. Etorkizuna imajinatzeko, ordea, komeni da iragana eta urtetan egindako guztia aitortzea eta haiei begira jartzea.**




Euskadiko GEHren testuinguruaz aztertzeko fasea

Egindako lehen urratsa Euskadiko [GEHren testuinguruaren azterketa](#) bat egitea izan da, hainbat leku eta eremutan GEHko esperientziak egin dituzten agente eta subjektuen ikuspegitik abiatuta. Urrats horren bidez, **(H)ABIAN 2030** strategiaren diseinua bideratzen lagunduko duten gako eta erronka batzuk zehaztu nahi izan dira, jakinik ez garelako zerotik hasiko, dagoeneko bide luzea egin dela eta egindako bide hori etor daitezkeen berritasunen orientatzaile eta inspiratzaile dela.

Azterketa egiteko, hainbat tresna eta une izan ditugu:

- Garapenerako Hezkuntzari buruzko [Azterlana](#): Eusko Jaurlaritzak finantzaturako proiektuen egoerari, bilakaerari eta 2005-2014 aldirako joerei buruzko azterketa.
- Hainbat eremutan (hezkuntza formalean, ez-formalean, informalean eta goi-mailako ikasketetan) diharduten agenteen parte-hartzearekin egindako tailerrak, eta *world café* saioa. Prozesu osoan parte hartzeko izan ditugun horrelako guneei GEHri buruzko gogoeta talde espezifiko (GTE) deitu diegu.

- Kontraste-taldearekin elkarrizketak. Taldea beste eremu geografiko batzuetakoak diren eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egiten ari zena kontrastatzen lagundu duten kanpoko agente batzuek osatu dute.
- Internet bidezko ekarpenak (galde-sortak, mezu elektronikoak eta Irekia).
- Ebaluatutako prozesuen ondorioen aurkezpena eta haiei buruzko eztabaida: [hezkuntza formaleko](#) hainbat proiektu eta [eragin eta mobilizazioko](#) prozesu bat.
- Ekarpn egin dituzten entitateekin elkarrizketan aritzeko guneak.
- GEHri buruz dagoen [dokumentazioaren](#) azterketa.



Horietan guztietan, GEHren esparruko agenteek hartu dute parte, askotariko profilekin eta esperientzia osagarriekin.

Horri guztiari esker, egiten ziren jardun batzuen ikuspegi analitiko zein pertzepziozko bat daukagu. Halaber, ahalmenak eta adostasunak ezagutu eta erronkak eta korapiloak identifikatu ahal izan dira. **(H)ABIAN 2030** estrategiak haietako batzuk landu ditu.

(H)ABIAN 2030 estrategia diseinatzeko fasea

Euskadiko [GEHren testuinguruaren azterketa](#) dokumentua landu zenez gerostik hasi zen **(H)ABIAN 2030** estrategia diseinatzeko prozesua. Fase horretan, tresnak eta kolektiboak aurreko fasekoen (GTE eta kontraste taldea) antzekoak badira ere, proposamen zehatzago bat izateko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) taldearen lan bat eta talde horren eta Eusko Jaurilaritzaren beste sail batzuen arteko beste bat planteatzen da sektoreko agenteekiko tailerren aurretik.



Halaber, politiken koherentziari jarraikiz eta **(H)ABIAN 2030** estrategia agente guztiek islatuta sentitzeko moduko esparru izan dadin laguntzeko, tailer bat egingo da Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailekin eta GTEn parte hartzen duten pertsonekin, elkar ezagutzeko aukera bultzatzeko eta GEHko prozesuetan inplika daitezten sustatzeko. Erronka nagusia euskal administrazio guztiek prozesu horiekin konpromisoa har dezaten lortzea da berriz ere. Horretarako, ingurumenari, kontsumoari, gazteriari, garapen komunitarioari, giza eskubideei eta hezkuntzari lotutako arloekiko baterako lanari emango zaio lehentasuna oraingoz.

Gainera, kontraste taldearen atzeraelikadura jaso da, eta dokumentua Irekian aurkeztu da, ekarpenak biltzeko.



GEHren aurrekariak eta kontzeptua

GARAPEN **HELBURUAK** IRAUNKORRERAKO



Laguntzaileak: TROLLBÄCK + COMPANY | TheGlobalGoals@trollback.com | +1.212.529.1010
 Erabilerari buruzko zailantzarik baduzu, idatzi helbide honetara: dpicampaign@un.org

Aldi berean, toki-mailan, herriek, erakundeek, gizarte-mugimenduek eta erakunde publikoek errealitate eta bidezko harreman eta solidarioak eta bizi-estilo koherenteak sortzen dituzten proposamenak planteatzen dituzte. Horretarako, *Sumak Kawsay* –erabateko bizitza– delakoaren edo deshazkundearen planteamenduei jarraitzen zaie, askotariko ikuspegiak gaineratzen dira –feministak, dekolonialak edo elikadura-burujabetzari, kulturartekotasunari edo eskubideei lotutakoak–, eta ekintza kolektiboa da ardatza (hala nola etxebizitza, sexu- eta genero-aniztasuna, errefuxiatuak eta kalitatezko zerbitzu publikoak babesteko). Adierazpen horiek guztiek beren sareak eta aliantzak dituzte, eta haiek ere proposamenak sortzen dituzte maila globalean, eskubideen ikuspegiaren erreferentziarekin.

GGKEen testuinguruaren eta bilakaeraren beraren ondorioz, erakunde batzuk lankidetzaren sektoretik kanpoko beste subjektu batzuetara hurbiltzen dira eta elkarrekin lan egiten dute. Erakunde batzuek urteak zeramatzaten hezkuntza-erakundeekin, gizarte-mugimenduekin, ekonomia sozial eta solidarioko entitateekin eta abar hertsiki lotuta lan egiten, baina elkarren mendekotasuna egiaztatzearen eta antzeko arazoei aurre egin behar diren ondorioz, egiten duten lana berrikusi, birkokatu eta tokiko testuinguruan zein testuinguru globalean beren lekua bilatu behar izan dute entitate horietako gehienek. Hori guztia dela-eta, ahalegin handiagoa egin behar da proposamen alternatiboak sortu eta zabaltzeko, eta behar handiagoa dago komunikazio, eragin eta mobilizazioko ekintzetarako antolatzeko.

Azken urteotan, ordea, erakunde publiko batzuek lankidetzaren arloan egin dituzten murrizketek (batzuk oso txikiak dira, beste batzuk aurrekontuaren % 25-70era iritsi dira, eta badira ia % 100era iritsi direnak ere) mugatu egiten dituzte GGKEen eta erakundeen jarduteko ahalmena eta beste proposamen batzuekin antolatzeko aukerak, eta baldintzatu egiten dituzte hainbat testuinguru geografikotan egiten ari diren hezkuntza- eta garapen-prozesuak.

2.2. Iraganera begiratzea oraina ulertu eta etorkizuna bideratzeko

2.2.1. Arau- eta erreferentzia-esparrua

Nazioartean, Unescoren ekarpenek bideratu dituzte hezkuntza-proposamenak. [Azken txostenean \(2015\)](#), mundua aldatzen ari dela eta hezkuntza ere aldatu beharra dagoela adierazi zuen Unescok. Horretarako, hezkuntza humanista baten beharra planteatu du. Hezkuntza horrek, alfabetatzea ez ezik, ikasteko inguruneak eta munduan justizia, ekitate soziala eta elkartasuna bultzatuko duten ikaskuntza-ikuspegi berriak ere izango ditu oinarri. Hezkuntza jasotzeko aukera izatea ez da nahikoa. Kalitatezko hezkuntza bat eta ikasteko prozesu egokiak behar dira, oinarrizko hezkuntza jasotzeko beharrari eta eskubideari zein bitzita osoko ikaskuntzarako eskubideari erantzuten lagunduko dutenak. Erakunde horren ustez, hezkuntzak ahalmen handia dauka eraldatzeko, giza eskubideak eta duintasuna sustatzeko, pobrezia desagerrarazteko, jasangarritasuna lortzeko eta pertsona guztientzako etorkizun hobea eta eskubide-berdintasunean, justizia sozialean, kultura-aniztasunaren errespetuan, nazioarteko elkartasunean eta erantzukizun partekatuan oinarritua eraikitzeko. Helburu horiek gizatasunaren funtsezko alderdiak dira. Txosten horren beste ekarpen bereizgarri bat zera da, hezkuntza eta jakintza munduko ondasun komuntzat hartzea proposatzen duela, hezkuntzaren helburua eta antolaketa mundu konplexu bateko gizarte-zeregin kolektibo izan dadin laguntzeko.

Jacques Delorsek 1996an Unescori igorritako txostenean adierazten diren hezkuntzaren lau zutabeek indarrean diraute gaur egun: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, izaten ikastea eta elkarrekin bizitzen ikastea. Unescok txosten horren inguruan egindako berrikuspenean adierazten duenez, “elkarrekin bizitzea, adibidez, ezin da giza interakzioen gizarte- eta kultura-alderdietara mugatuta geratu. Aitzitik, gizartearen eta ingurune naturalaren arteko loturarekiko interesa ere kontuan hartu behar du”.

Arau-esparru garrantzitsuenak	
Europako arau-esparrua	Euskadiko arau-esparrua
Europako Kontseilua: <i>GHri eta Europako iritzi publikoa garapenerako lankidetzaren alde sentsibilizatzeari buruzko ebazpena (2001)</i>	
<i>Garapenaren arloko hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren garapen eta laguntzari buruzko Europako Adostasuna (2007)</i>	<i>1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa</i>
	<i>14/2007 Legea, abenduaren 28koa, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarena.</i>
<i>Maastrichteko Adierazpena (2005-2014), Europako Hezkuntza Globalari buruzkoa</i>	

Europako arau-esparruari dagokionez, Garapenerako Hezkuntzaren erreferentziak honako hauek dira: Garapenerako Hezkuntzari eta Europako iritzi publikoa garapenerako lankidetzaren alde sentsibilizatzeari buruzko Ebazpena (Europako Kontseiluak 2001ean onartua), garapenaren arloko hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren garapen eta laguntzari buruzko Europako Adostasuna (2007koa), eta Europar Batasuneko herrialdeetan bultzatutako GHko estrategiak eragin zituen

Europako Hezkuntza Globalari buruzko Maastrichteko Adierazpena (2005-2014).

Unibertsitate-eremuan, Bologna Planaren bidez kalitateari, aniztasunari, lehiakortasunari eta enplegarritasunerako orientazioari lotutako irizpideen inguruko erreforma bat egin nahi zen.

Erreforma horrek alde onak eta txarrak izan ditu hasieratik. Alde batetik, Planaren proposamen metodologikoak metodologia aktiboen erabileraren bidez sustatzen du irakaskuntza, ikasleek beren ikasteko prozesuan protagonismo handiagoa izan dezaten, lankidetzan oinarritutako eta gaitasunen araberako lana egin dezaten eta teknologia berriak erabil ditzaten. Alderdi horietako asko GEHn sartzeko atea izan daitezke. Bestetik, adierazpen formalak gorabehera, irakaskuntza eta ikerketa merkatuaren eskariak betetzera bideratzeko unibertsitatearen gizarte-funtzioa bigarren maila batean uzten duen unibertsitate-erreforma bat abian jartzeak ekar ditzakeen arriskuen inguruko kezka handia dago.

EAEko eremuan, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza formalaren kasuan antzeko zerbait gertatzen da euskal hezkuntza-sistema hobetzeko bultzatutako [Heziberri 2020 Planarekin](#). Plan horrek sustatzen duen hezkuntza-eredu pedagogikoak honako hauek gaineratzen ditu: gaitasun zibiko-sozialak, eduki deklaratiiboak, jarrerazkoak eta prozedurazkoak irakatsi eta ikasteko orientazioak, teknologia berrien erabilera, zentroen autonomia, aniztasunari erantzungo dion hezkuntza inklusiboa eta abar. Gizartean justiziaren eta elkartasunaren balioekin bizitzeko hezkuntzari lotutako alderdiak (unibertsitate-eremuan, adibidez) GEHrekiko elkargune izan daitezke. Hala ere, zenbait sektoreentzat nolabaiteko tirabira sor daiteke ikasleentzat proposatzen diren profiei dagokienez, enplegarritasunera eta merkatuak behar dituen jakintzei erantzutera bideratuta baitaude.

Lankidetzari lotutako euskal arau-esparruari dagokionez, azpimarratu beharra dago Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko [1/2007 Legean](#) GHz egiten den definizioa: “garapenerako heziketa honako xede hauek dituen da: Iparraldearen eta Hegoaldearen garapen ezberdinarekin zerikusia duten arazoan arrazoi eta ondorioak ezagutaraztea, herritarrengan arazo horien gaineko kontzientzia kritikoa piztea eta arlo horretan elkartasunezko eta konpromiso aktiboko jarduerak eragitea. Garapenerako heziketaren kontzeptuaren barruan sartuta daude gizartean sentsibilizazioa eragiteko ekintzak, prestakuntza-ekintzak eta ikerketa-ekintzak”. Erreferentzia horrez gain, abenduaren 28ko [14/2007 Legea](#) (Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarena) azpimarratu beharra dago euskal arau-esparruan. Lege horren erabaki eta konpromisoetan, justiziaren eta herrialde pobretuekiko elkartasunaren aldeko hezkuntza eta sentsibilizazioa sustatu beharra adierazten da.

Lankidetzaren arloko euskal erakundeetan, GHren edo GEHren inguruko arau-garapen eta garapen praktikoa bat gertatu da azken urteotan. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak “Eragiten” garatu zuen (2003eko iraila-2004ko ekaina), GHko I. Estrategia lantzeko parte-hartzean oinarritutako prozesu gisa. Azkenean inplementatu ez bazen ere, eragin handia izan du GGKEek azken urteotan bultzatutako hezkuntza-proposamenetan. Geroago, garapenerako hezkuntzaren elementuak garatu dira hainbat plan zuzendaritan, eta [azken Plan Estrategiko eta Zuzendarian \(2014-2017\)](#) utzi da alde batera GH kontzeptua, GEH kontzeptuari heltzeko.

Lurraldeei dagokienez, hiru foru-aldundiek batera landutako Garapenerako Lankidetzako Plan Zuzendaria (2009-2011) azpimarratu behar dugu. Erakundeen lan-esperientzia koordinatu horretan, hiru lan-ildoetako bat GH izan zen. Halaber, geroago Aldundi bakoitzak egindako ekarpen batzuk azpimarratu behar ditugu. Araban, “[Mirando hacia delante](#)” dokumentua (2011ko urtarrila-otsaila) proposamen garrantzitsua izan da garapenerako hezkuntzaren erronken inguruko lan kolektiboan. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak tokiko-global ikuspegia GEHren zeharkako espezifikoa gisa lantzen du II. Plan Zuzendarian. Bizkaiko Foru Aldundiaren II. Plan Zuzendarian, berriz, GH hiru ardatzetako bat da. Aldundiak, gainera, kanpoko aholkularitzarekin finantzatzen du GHko proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko prozesuaren hobekuntza.

Udal-mailan, ekimenak ugari eta askotarikoak dira, eta tokiko esparruan daude oinarrituta. Horren adierazgarri, Euskal Fondoa – Euskal Toki Erakundearen Lankidetzarako Elkarateak sensibilizazioaren eta GEHren eremuan abian jarritako ekimenen bitartez azken urteotan bultzatu duen lana aipatu behar dugu. Adierazi beharra dago, halaber, toki-eremuko elementu bereizgarri bat bidezko merkataritzaren eta erosketa publiko arduratsuen aldeko lana izan dela.

Era berean, azpimarratu beharra dago GGKEek eta beste euskal eragile batzuek GHko prozesuak praktikan jartzeko garaian bete duten zeregin garrantzitsua. Eragile horien artean, honako hauek ditugu: hezkuntza-komunitatea, unibertsitateak, komunikabideak, gizarte-mugimenduak, mugimendu feministak, ekologistak, baztertutako herrietako kolektiboak eta migratzaileen kolektiboak. Urte hauetan egin diren jardunen aniztasuna eta kalitatea gure herrialdeko elkar- eta erakunde-aberastasunaren adierazgarriak dira.

2.2.2. GHren historia. Bost belaunaldiak

Berrogeita hamarreko hamarkadatik gaur arte, GHk heltze-prozesu bat bizi izan du, kontzeptuari zein abian jarritako jardunbideei dagokienez, eta testuinguru eta dinamika sozialen eragina jaso du. Urte hauetan, GHk hainbat iturri izan ditu, hala nola Latinoamerikako Herri Hezkuntza, Berrikuntza Pedagogikoko Mugimenduek bultzatzen duten Hezkuntza Kritikoa eta Parte-hartzean oinarritutako Ikerketa eta Ekintza.

GH ez da monolitikoa eta jende guztiak ez du era berean ulertzen. Esan daiteke urte hauetan guztietan GHren bost belaunaldi izan direla:

Lehen belaunaldia	Geroago GH deituko zitzaionaren aurrekariak izan ziren eta karitate- eta laguntza-izaera zuten sensibilizazio-jardunbideak ziren
Bigarren belaunaldia	GHren hasiera. Garai hartan nagusi zen ereduari jarraitu zion eta ikuspegi desarrollista bat izan zuen
Hirugarren belaunaldia	Ikuspegi eta jarrera hartze kritiko eta solidarioak gaineratu zituen GHk
Laugarren belaunaldia	GHk giza garapen eta garapen jasangarriaren ikuspegia zuen
Bosgarren belaunaldia	GHk herritartasun globalaren eraikuntza planteatzen du eta Hezkuntza Global izenekoarekin lotuta dago


Belaunaldi horiek garapenari eta GHri buruzko esparru teoriko batzuei erantzuten diete. Dena dela, urte hauetan egin diren jardunbideek ez diete belaunaldi bakar bati zorrotz jarraitu. Aitzitik, une jakin batzuetan testuinguruak neurri handian baldintzatu dituzten belaunaldien artean mugitu dira, eta pluralak eta askotarikoak izan dira.

Bestalde, GHren inguruko gogoeta eta praktikan, pentsamendu eta proposamenerako guneek zeregin azpimarragarria bete dute. Haien artean, Hegoak GHri buruz antolatutako [azken biltzarrak](#) eta biltzarren artean esperientzia eraldatzaileei buruz egin diren hiru [topaketak](#) aipa daitezke. Azken biltzarrean GEHren belaunaldi berri bat aurreratu bazen ere, ezin zaio garrantzia kendu GHren Bosgarren Belaunaldiari, hots, Herritartasun Globalerako Hezkuntzari (HGH). Izan ere, belaunaldi hori GEHren zuzeneko aurrekaria da, eta hura gabe

ezinezkoa izango litzateke egungo testuinguruaren erronkak identifikatzea. GHk demokrazia substantzialeko prozesuak sendotzea planteatzen du. Prozesu horietan, herritartasun kritiko eta konprometitu baten parte-hartzea ezinbestekoa da, desberdintasunetatik eta kulturarteko elkarrizketatik abiatuta. Prozesu horiek ezin dira ulertu erantzukizun individual eta kolektibotik abiatuta bazterkeriaren aurkako borroka eraginkorrik egin gabe.

Duela urte batzuek geroztik, ikuspegi espezifikoek ekarpenak egiten zituzten baina helburu eta estrategia berak zituzten hainbat esperientzia lotzeko hezkuntza-proposamen bat behar zela susmatu da. GHren laugarren belaunalditik aurrera, planteatutako eztabaidetako bat GHk Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak soilik landu behar dituen ala GH baterako hezkuntza, kulturarteko hezkuntza, bakerako hezkuntza, elkartasunerako hezkuntza, ingurumen-hezkuntza eta abar biltzen dituen hezkuntza global gisa landu behar den izan da.

Eztabaida batzuetan, GHk hezkuntza-proposamen horiek biltzeko duen ahalmena aipatu da. Beste batzuetan, berriz, Hezkuntza Global izenekoan aurrera egin daitekeela iradoki da, gizarte-eraldaketako prozesuak era koordinatuan egiteko aukera ematen duen topagunetzat hartuta. Ildo horretan, Hezkuntza Globalari buruzko honako definizio hau jaso zen 2002. urtean, Europako Kontseiluak Iparralde-Hegoalde Zentroaren bitartez sustatutako **Europako Hezkuntza Globalari buruzko Maastrichteko Adierazpenean (2005-2014)**: “Hezkuntza globala pertsonen begiak eta burua mundu globalizatuaren errealitateetara irekitzen dituen eta pertsona horiek justizia eta ekitate handiagoko mundu bat eta giza eskubideak guztiontzat lortzera bultzatzen dituen da. Hezkuntza Globalak Garapenerako Hezkuntza, Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntza, Jasangarritasunerako Hezkuntza, Bakerako eta Gatazken Prebentziorako Hezkuntza eta Kulturarteko Hezkuntza biltzen ditu, eta Herritartasunerako Hezkuntzaren dimentsio globalak dira haiek guztiak”. Hala ere, Hezkuntza Globalaren esparruan, GHren inguruan jasotzen zuen ikuskerak Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanei soilik lotutako alderdiak lantzen zituen.



2.2.3. GHtik GEHrako trantsizioaren elementuak

Urte hauetan GHko prozesuen bidez egin den lana lagungarria izan da berdintasunik ezak eta bidegabekeriak sortzen dituen eredu neoliberalaren alternatibak lantzeko garaian. Lan horretan lagundu duten erakundeek badakite landutako jardunbideek eta testuinguruak berak GHko prozesuak aberastu eta eguneratuko dituzten ikuspegi berriak txertatzera behartzen dutela.

Gaur egun, ez dago aurrera egiten ari den belaunaldi berriaren definizio adosturik, baina GEHren definizioaren eta GEHren bidez aurre egin beharreko erronken inguruko adostasun

orokorrak antzeman dira. Adostasun horiek erakundeek eta gainerako agenteek urte hauetan egindako gogoetaren eta eztabaidaren emaitza dira. Gogoeta horiek biltzarren, azterketa taldeen, ikerketen, diagnostikoen eta beste argitalpen batzuen esparruan egin dira, eta hainbat erronka zehaztu dituzte. Haien artean, sustatu nahi diren esparru teorikoen eta hezkuntza-jardunbide zehatzen arteko koherentzia handiagoa lortzeko erronka dago.

Ildo horretan, aurreko belaunaldien ekarpenak bildu, eta alderdi batzuk besteak baino neurri handiagoan sendotu dira. Nabaria da aldaketaren eta eraldaketaren premia ardatz gisa merkatuak jartzen dituen globalizazio-sistemak eta mendebaldeko gizonengan eta harreman heterosexualetan oinarrituta dagoen gizarte-ereduak sortzen dituzten berdintasunik eza eta bidegabekeriei aurre egiteko. Erronka ekarpenak zer eraldaketatarako egin behar diren identifikatzean datza. Unescok adierazitakoaren ildotik, GEHren apustua justiziaren, berdintasunik ezak (ez, ordea, aniztasuna) desagerraraztearen, bizitzen jasangarritasunaren, elkartasunaren, parte-hartzearen sustapenaren eta tokikoa den horretan oinarrituta egongo den eta ikuspegi globala izango duen herritartasun eta gobernantza baten eraikuntzaren aldeko apustua da. Herritartasun globala proposamen hori egituratzen duen elementu da oraindik ere, aurreko aldikoaz bestelako egoera batetik abiatuta. Herritartasun globalaren eskubideez jabetu ondoren, erantzukizunak bere gain hartzeko, ahalduntzeko eta errealitatearen eraldaketaren alde jarduteko garaia da. Horretarako, eskubideen jakintzan hezi ordez, pertsonak eta subjektuak ahaldunduko dituen pentsamendu kritiko batetik abiatuta hezi beharra dago, nahi duten eraldaketarako ekarpenak egin ditzaten, betiere eskubideen ikuspegia erreferentziatzat hartuta.

Ondoren, GEHrako bilakaera horretan aurrean izango ditugun erronketako batzuk aipatuko ditugu. Prozesuaren barruan egin ditugun irakurketa eta eztabaidetan ikusi dugunez, besteak beste honako ezaugarri hauek dituen hezkuntza gisa planteatzen da GEH gaur egun: (i) tokiko-global ikuspegia; (ii) ikuspegi politiko-pedagogikoak eta haien aplikazio praktikoa; (iii) subjektu eta agenteen aniztasuna; eta (iv) sareko lan egituratua.

i) Tokiko-global ikuspegia

Pixkanaka, eta egungo globalizazio-testuinguruari jarraikiz, Iparralde-Hegoalde binomio klasikoa apurtzen ari da. Elkarri lotutako eta elkarrekin konektatutako mundu batean bizi garenez gero, errealitate hurbilak aztertu eta interpretatzeko beharrezkoa da errealitate horiek ezaugarri bereizgarri gisa berdintasunik eza, justiziarik eza, bazterkeria eta naturaren instrumentalizazioa dituzten gizarteak sortzen dituzten dinamika estruktural eta globalekin lotzea. Tokiko-global ikuspegiaren bidez, GEHren inguruko gogoeta eta jardunbideetan sistemak dituen elkarren mendekotasunei, justiziarik ezaren eta berdintasunik ezaren arrazoi estrukturaleri, bidegabekerien eta borroken tokiko inpaktuei eta inpaktu globalei eta borroka horietan eta erronka partekatuetan beharrezkoa den erantzunkidetasunari buruz sakondu dadin sustatzen da, betiere herritartasun globalaren ikuspegitik.

Elkarren mendekotasun horri eta errealitatea eraldatzeko erronkei lotuta (mundu osoan agertzen dira), beharrezkoagoa da kezka, borroka, proposamen eta gogoeta komunak dituztenen arteko lotura eta harreman handiagoa. Hala ere, elkartruke eta lotura horrekin batera, aldaketa bat behar da botere-harremanetan eta besteei begiratzeko moduetan. Beharrezkoak dira, beraz, honako hauek: (1) ikuspegi berri bat; kultura, gizarte, klase, genero, sexu-orientazio, sinesmen eta gaitasun funtzionalen inguruko aniztasunak eta haietako bakoitzak mundu jasangarriago eta bidezkoago bat sortzeko egiten duen ekarpena aitortu behar dira (ikuspegi dekolonialitatea); (2) gure errealitatea, gure bizimodua eta mundua ulertzeko dugun modua bakarra, zuzena eta onena delako ikuspegiekiko haustura (ikuspegi etnozentrikoak); eta (3) erreferentzia bakar gisa harremanak eta gizarte ulertzeko modua (gizonen eta emakumeen arteko harreman heterosexualean oinarritua) duten ikuspegiekiko

haustura (ikuspegi heteronormatiboak). Tokiko-global ikuspegiak gure arteko harremanak ezartzeko, antolatze eta elkar ezagutzeko beste era batzuetara irekitzera gonbidatzen gaitu (aniztasuna funtsezko elementutzat hartuta), eta pertsona, gizarte eta kultura guztiak aberasten ditu.

Horrek guztiak desberdintasuna aberastasuntzat hartzera eta, era berean, aniztasuna gureak aberastu eta osatzen dituzten jakintzak, jardunbideak eta harremanak ikasteko eta ezagutzeko gunez hartzera eramaten gaitu. Unescok adierazi duenez, "jakintza mota bat pribilegiatzen denean, botere-sistema bat pribilegiatzen da. Etorkizuneko garapenari eta hezkuntzari begira, mundu-ikuskeraren desberdinen arteko elkarriketak aurrera egin behar du, errealitate desberdinetan sortutako jakintza-sistemak bateratzeko eta gure ondare komuna sortzeko". Horretarako, identitate propioa landu eta identitate hori beste batzuek nola osatzen, zalantzan jartzen eta, zenbaitetan, bereganatzen duten aztertu behar da. Zalantzarik gabe, aniztasuna lotuta dago egokiro kudeatuz gero gure identitate propioetan eta gure inguruko identitateetan sakontzen laguntzen digun gatazkaekin.

Tokiko-global ikuspegiak GEHren mugei eta aukerei buruzko gogoeta egitera bultzatzen gaitu. Nolanahi ere, GEHk tokiko eremuan errotuta eta eremu horretan garatuta egon behar du, baina EAetik kanpoko beste testuinguru geografiko batzuetan ere landu daiteke. Horrela, beraz, zalantzan jartzen da lankidetzaren eta GHren arteko dikotomia. Historikoki, lankidetzan egindako lana GHn egindakoa baino handiagoa izan da, baina GGKE batzuen apustu estrategikoari jarraituz, lankidetzak eta GHk arazo berak landu behar dituzte gai-arlo komun batzuen bidez eta proposamenak eta lan-estrategiak lotuz. Ildo horretan, interesgarria izango litzateke GEHko ekintzak edozein testuingurutan egin ahal izatea eta prestakuntza- edo hezkuntza-osagai bat duten jardunetan GEHren ikuspegiak eta jardunbideak txertatzea.

ii) Ikuspegi politiko-pedagogikoak eta haien aplikazio praktikoa

Egungo testuinguruak errealitatea ikusteko modua baldintzatzen digu. Ikasi dugunez, gaiak askotarikoak izan daitezke, eta kolektiboak ere bai; are gehiago, komeni da eragile-aniztasuna gero eta handiagoa izatea. Baina garbi dago, halaber, GEH ezin dela nolahi egin. Ikuspegi politiko-pedagogikoak (metodologikoak) funtsezkoak dira hezkuntzak haren bidez lortu nahi dituen eraldaketak ekartzeko.

Hezkuntza-prozesuek irakatsi eta ikasteko prozesu izan behar dute eta, prozesu horietan, hezten duenak ikasi egin behar du irakastean, eta hezten direnek irakatsi egin behar dute ikastean. Horretarako, subjektu protagonisten gaitasunak garatuko dituzten hezkuntza-prozesu kritikoak, sormenezkoak, sortzaileak, integralak eta integratzaileak behar dira. Prozesu horietan, jakintzak ez ezik, abileziak, trebetasunak, jarrerak eta balioak ere elementu nagusi izango dira. Edonola ere, errealitate aldatzeko zalantzan jartzeko prozesuak eta bilaketa- eta jarrera hartze-prozesuak izango dira. Askotariko identitate aldatzeko identifikatu eta ezagutzeko prozesuak. Askotariko prozesuak, elkarri konektatuak, indibidualak, taldekoak, kolektiboak eta masiboak. Prozesu presentzialak eta tresna eta gune digitalak ongi erabiltzen dituzten prozesuak. Gune formaletan, ez-formaletan eta informaletan elkarreragiteko prozesuak. Bat-batekoa eta ustekabekoa dena onartzen duten prozesuak. Alderdi estetikoak, artistikoak eta afektiboak elkarrekin lotzeko eta jakintzaren sorkuntza-prozesuan txertatzeko prozesuak. Eta, ororen gainetik, errealitatera eta aldatetara irekitako irakatsi eta ikasteko prozesu sutsu eta itxaropentsuak.

Ikuspegi eta metodologia horiek eragina izateko, pertsona eta kolektiboen errealitateari, premiei eta interesei lotuta egon behar dute testuinguru jakin bakoitzean. Halaber, elkarriketa, gogoeta eta jakintzen eta jardunbideen sorkuntza sustatu behar dute kolektiboen eta hurbileko pertsonen artean eta desberdinak diren eta beren desberdintasunetatik abiatuta

ekarpenak egin ditzaketenen artean. Ikuspegi politiko-pedagogikoak aplikatzeak, prozesu horietan parte hartzen duten pertsonen ekintzak etengabe zalantzan jartzea eta norbera zein taldeak eta erakundeak eraldatzea dakar. Prozesu horiek gauzatzeko, etengabeko gogoeta eta ikaskuntza ahalbidetuko dituzten guneak behar dira.

Bultzatu nahi diren ikuspegi politiko-pedagogikoak agertu izan dira GHren diskurtsoan, baina ikuspegi horiek hezkuntza-jardunbideetan erabat txertatzeko erronkari aurre egin behar zaio oraindik. Alde batetik, aniztasunen kudeaketa eta gatazken maneia lantzen duten ikuspegiak tradizionalenak daude, hala nola ikuspegi kritikoak, parte-hartzean oinarrituak eta sozio-afektiboak. Bestetik, giza eskubideen ikuspegiak eta kulturarteko ikuspegiak garrantzi eta agerpen handiagoa izan dute azken urteotan. Eta, azkenik, ikuspegi feministak eta bizitzen jasangarritasunaren ikuspegiak indar handiagoa hartu dute entitate batzuek azken urteotan bultzatutako hezkuntza-ekimenetan. Nolanahi ere, erronka handia da ikuspegi horiek txertatzea.

Ilido horretan, oso garrantzitsua da eskubideen ikuspegiari hertsiki lotuta egongo den, eskubide eta betebeharren titularrak identifikatuko dituen eta eskubideen titularrek beren eskariak planteatzeko dituzten ahalmenak eta betebeharren titularrek eskubide horiek bermatu, errespetatu eta sustatzeko dituzten ahalmenak sendotzen lagunduko duen GEH batean sakontzea. GEH horrek gizarte plural, askotariko eta kulturantzunetan bizitzeko heziko du, oso lotuta egongo da generoarekin eta feminismoekin, sexu- eta genero-aniztasuna eta indarkeria matxista landuko ditu, eta eredu heteronormatiboa zalantzan jarriko du.

Ikuspegi horiek pertsonen askatasunerako, berrespenerako, hazteko eta sortzeko gune gisa ulertu behar dira. Gune horiek lortu nahi den eraldaketarako beharrezkoak diren baldintzak sortuko dituzte, eta pertsonen arteko bizikidetasuna, pertsona guztientzako zorientasun-baldintzak eta printzipio etiko jakin batzuetan (erantzukizuna, autonomia, premia komunak kontzientzia, koherentziaren bilaketa, justizia eta ekitatea) oinarritutako gizarteak sustatuko dituzte.

Zalantzarik gabe, ikuspegi politiko-pedagogiko horiek lantzen diren hezkuntza-jardunbideetan txertatzeko, beharrezkoak diren baldintzak sortzeko gaitasun nahikoak dituzten pertsonak behar dira. Gaitasun horien artean, honako hauek ditugu: entzuteko eta komunikatzeko gaitasuna, talde-lanerako gaitasuna eta amestu eta proiektatzeko, ausartu, zirrara sortarazi eta gozatzeko, aztertu eta laburbiltzeko, abstrakzioa egiteko eta zehazteko, ikertu eta mobilizatzeko, emozioak sentitu eta bideratzeko, gauzak eta bere burua zalantzan jartzeko eta, azken batean, irakatsi eta ikasteko prozesuan eraldatzeko (beren errealitatea eraldatzen duten heinean) gaitasuna. Prozesuei denboran eusteko eta prozesuen garapenerako beharrezkoak diren konfiantzak, harremanak eta konplizitateak sortzeko ahalmena duten pertsonak behar dira. Halaber, behar-beharrezkoa da hezkuntza-prozesuen protagonistak diren pertsonak zein prozesuak bultzatzen dituzten entitateek gogoia eta interesa agertzea eta ikuspegiak beren gain hartzea.

iii) Subjektu eta agenteen aniztasuna

GHren hasieran agente nagusiak GGKEak baziren ere, gaur egun hainbat leku geografikotako eta hainbat eremutako (hezkuntza, etxebizitza, osasuna, feminismoa, ekologia, sexu-aniztasuna, aniztasun funtzionala, migrazioa, kontsumo arduratsua eta abar) subjektu ugari lantzen dituzte batera GEH eta haren erronkak. Arestian adierazi dugun bezala gatazken eta bidegabekerien arrazoiak berberak badira (testuinguruaren arabera forma desberdina badute ere), beharrezkoa da askotariko eragileek botere-harremanak eraldatzeko agenda komunak antolatzea.

Horrela, beraz, GEHK askotariko subjektuen arteko estrategia eta ekintza koordinatuak, pluralak eta zabalak behar ditu kapitalismo globalaren ondorioei aurre egiteko. Askotariko eragileak eta jakintzak lotuko dituzten eredu nagusiez bestelako esperientziak behar dira. Eragileak, askotan, hezkuntza-jardunbideen sustatzaileak eta subjektuak dira aldi berean. Beraz, hezkuntza-prozesu horien sustatzaileen eta protagonisten arteko bereizketa desagertu egiten da.

Horri lotuta, GEHren bidez lortu nahi denaren definizioari buruzko eztabaida sortu da: lortu nahi diren eraldaketen protagonistak izango diren subjektuak, subjektu politikoak, kolektibo emantzipatzaileak, subjektu indibidualak eta kolektiboak. Subjektu horiek lortzeko, honako hau bermatu beharko da: (i) berdintasunik eza egoeretan pertsona eta kolektibo bakoitzak bete behar duen zereginaren eta zeregin horrek dituen ondorioen inguruko kontzientzia kritikoa eskuratzeko prozesu bat egin dutela; (ii) tokiko testuinguruan eta testuinguru globalean gertatzen dena interpretatzeko gaitasuna garatu dutela; (iii) eraldatzeko borondatea dutela, pertsonak beren errealitatearen protagonistak izan daitezzen; eta (iv) beste batzuekin batera errealitatea eraldatzeko ekintza eta prozesu zehatzen sorkuntza sustatzen dutela.

Subjektu horiekin eta beste eragile eta agente askorekin egin behar da lan hezkuntza-prozesuetan. Ohiko GGKEez gain, hezkuntza-komunitatea, Berritzeguneak, unibertsitateak, komunikabideak, gizarte-mugimenduak, kolektibo feministak, ekologistak, baztertutako biztanleen kolektiboak, migratzaileen kolektiboak eta abar ditugu. Gizarte zibileko entitateen lanaz gain, hezkuntza-prozesu horietan zeregin bat bete behar duten erakunde publikoen inplikazio handiagoa behar da. Testuinguru horretan, oro har herritar guztiengana eta bereziki kolektibo espezifikoko batzuetara (hala nola emakume, haur, gazte eta kolektibo kalteberetara) iristeko erronka du aurrean GEHk. Haietara iristeko eta hainbat entitate eta subjektu egiten ari diren proposamenetan parte har dezaten lortzeko erronka.

Beste entitate desberdin batzuekin gero eta lotuago dagoen lanak eta gizarte-testuinguruaren aldaketak egitei eta agenteen jarduteko moduei buruzko gogoeta egin beharra dakarte. Errealitate konplexu, askotariko, presentzial eta birtuala dela-eta, egiturak eraldatu, zurruntasuna, departamentalizazioa eta funtzionamendu-inertziak gainditu eta komunikazioa hobetu behar da. Kanean, gizartean eta eremu publikoan parte hartzeko aukera erraztuko duten egiturak behar dira, GEHrekin bat datozen mezuak komunikatu eta helarazi ahal izango dituztenak eta erakundeen barruan zein kanpoan ekitatearen sustapenaren alde argi eta garbi egingo dutenak.

iv) Sareko lan egituratua

Erakundeen arteko, sailen arteko eta bestelako erakundeen arteko koordinazioa, osagarritasuna eta baterako lana bultzatzeko, beharrezkoa da lan koordinatua eta partekatua gizartea hezkuntzan oinarrituta eraldatzeko aukera benetan sustatzeko premia gisa bizitzea. Hori lortzeko, funtsezkoa da elkarren beharra dugula jakitea eta, beraz, GEHn diharduten subjektuen jarrera pertsonala eta erakunde-kultura aldatzea eta politiken koherentziaren alde egitea. Gizarte-eragileekin batera konfiantza lortzeko eta herritartasuna sortzeko harremanak lotuko dituen hezkuntza-erakunde baterako urratsak egiteko erronkari egin behar diote aurre administrazioek –oro har– eta politikari eta teknikariek –bereziki–. Hori aurrerapauso handia da administrazio gehienek GHko proiektuen finantzatzaile soil gisa bete duten zereginarekin alderatuta. Eta gardentasunean sakontzea, desadostasunak lantzea eta baterako lankidetzaprozesuak garatzea dakar.

Garrantzitsua da, halaber, koordinazio-esperientziak sortzea administrazioan (erakundeen artean eta sailen artean) eta gizarte-eragileekin. Adibidez, praktiketako laborategiak egin daitezke elkarrekiko jakintza, eztabaida, proposamenak, ikuspegiak eta konfiantza lantzeko.

Sareko lana ere beharrezkoa da, eta gizarte-entitate askok erabiltzen dute. Lan koordinatu horren premia nabarmena bada ere, lan egituratuko prozesu horietatik abiatuta ikaskuntzak sortzean datza erronka, bakoitzak garbiago zehaztu ahal izan dezan zer saretan egon, zenbat denbora eskaini, sarean nola lan egin, nola ireki beste desberdin batzuetara eta nola lan egin haiekin, nola konbinatu berdinen eta desberdinen arteko sareak eta abar.



(H)ABIAN 2030
estrategiaren
esku-hartze
esparrua



Testuingurua, hezkuntza-arloan dagoen esperientzia eta identifikatutako erronkak aintzat hartuta, **(H)ABIAN 2030** estrategiak EAEn GEHko prozesuak bultzatzea du xede; prozesu horiek funtsezko 6 elementu izaten dituzte. Prozesu horietan oinarrituta, **(H)ABIAN 2030** estrategiak 16 aldaketa lortu nahi ditu bai gizartean, bai prozesuan inplikaturako erakundeetan. Aldaketa horiek lortzeko, 6 indar-ideia identifikatu ditugu GEHko agenteek datozen urteotan egin beharreko lana bideratze aldera.

16 aldaketa horiek etorkizunean eratu nahi dugun agertokia dira. Badakigu gaur egungo testuingurua aldatu egin daitekeela epe ertainean; beraz, etengabeko jarraipena egin beharko da egin beharreko egokitzapenak egiteko.

Jarraian, GEHren eta aldaketen arteko sekuentzia eta interrelazioa adierazten duen grafiko bat aurkeztuko dugu; GEH abiapuntua eta, aldi berean, helmuga ere bada, sortutako aldaketa eta jardunbideetatik abiatuta.

- Subjektu protagonistak
- Ikuspegi politiko-pedagogikoak
- Eskubideen ikuspegia
- Tokiko-global ikuspegia
- Agenteen arteko erantzukidetasuna
- Ikaskuntza-kultura

GEH

Indar-ideiak

- Herritartasun globalaren alternatibak lortu nahi dituzten eta eratzen dituzten subjektuei laguntzea
- GEHren ikuspegi politiko-pedagogikoak txerta daitezen sustatzea eta indartzea
- Eskubideen ikuspegia txerta dadin sustatzea eta indartzea
- Tokiko-global ikuspegia txerta dadin sustatzea eta indartzea
- Agente guztien arteko erantzukidetasuna sustatzea, batik bat, erakunde publikoena
- Etengabeko ikaskuntza izatea erreferentzia

- **1. aldaketa.** GEHk (H)ABIAN 2030 estrategiarekin koherenteak diren ikuspegi politiko-pedagogikoak izatea.
- **2. aldaketa.** GEHk ikuspegi etnozentriko, heteronormatibo eta antropozentrikoak gainditzea, eta askotariko subjektu eta agenteak inplikatzera.
- **3. aldaketa.** Eskubideen ikuspegia eta tokiko-global ikuspegia GEHren funtsezko ezaugarria izatea.
- **4. aldaketa.** Garatzen den ikaskuntza-kulturak jardunbideak eralda ditzala eta GEH indar dezala, ahal dela, ekintzarako prestakuntza, ekintza eraldatzaileak eta erakunde hezitzaileen rola indartzeari dagokionez.
- **5. aldaketa.** GEHren hezkuntza-jardunbideak ikuspegi globala duten tokiko jardunak eta eskubideen ikuspegitik begiratutako tokiko garapenak izatea.
- **6. aldaketa.** GEHren jardunbideetan GEH eta Lankidetzaren helburu berarekin eta partekatutako gaiekin erlazionatzea.
- **7. aldaketa.** GEHren jardunbideetan herritartasun globaleko alternatibak bilatzeko azterketa kritikoa egitea.
- **8. aldaketa.** GEHren jardunbideek pertsona eta kolektiboen jarduna eta inplikazioa sustatzea alternatiba jasangarri, solidario eta ekitatiboak abiarazteko.
- **9. aldaketa.** Pertsona eta kolektiboen jarrera, trebetasun eta gaitasunak garatzea errealitate tokiko-globalari ikuspegi zabal eta kritikoa batetik begira diezaioaten.
- **10. aldaketa.** GEHko pertsona eta kolektiboen beren protagonismoa beren gain hartzea, desberdintasunak eragiten dituzten arrazoiei alternatibak biltzen banaka eta kolektiboan jardun dezaten, eta gizartea inplikatze eta mobilizatzeko gai izan daitezen.
- **11. aldaketa.** GEHko pertsona eta kolektiboen ekimen eta aliantza globalak egituratzea baina helburu berdinekin, eta horretarako estrategia, eragile eta gaiak identifikatzea.
- **12. aldaketa.** Pertsona eta kolektiboen ikaskuntza-prozesuak abiaraztea norberaren hezkuntza-jardunbideetan oinarrituta, eta lortutako ikaskuntzak prozesu berrietan txerta ditzatela eta parteka ditzatela.
- **13. aldaketa.** Erakunde publikoen GEHrekin koherenteak diren jardunbideak txertatzea eguneroko jardunean.
- **14. aldaketa.** Erakunde bakoitzaren gainerako politikekin koherentea izango den GEHko politika publikoa finkatzea.
- **15. aldaketa.** (H)ABIAN 2030 strategiari atxikitako lankidetzako erakunde publikoen GEHko politikak koherenteak izatea.
- **16. aldaketa.** GEHren agenda bat zehazten laguntzea Euskaditik, giza eskubideen ikuspegitik begirata.

Aldaketak

3.1 GEH (H)ABIAN 2030 estrategian

Aurreko ataletan esan dugunez, testuinguruak erronka ugari proposatzen dizkigu eta erronka horiek eragina dute hezkuntzari, oro har, eta irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuetan gaur egun inplikaturako hezkuntza-agente guztiei errealitatea eraldatzeko egiten zaizkien eskarietan.

(H)ABIAN 2030 estrategiak ontzat hartzen ditu orain arte egindako urratsak eta agente guztien artean lortu diren aurrerapenak. Aldi berean, urrats berriak egiteko erronka bere gain hartu du, gaur egungo testuinguruan sortzen ari diren erronkei erantzun ahal izateko. Guk lortu nahi dugun GEHk errealitatea eraldatu nahi du: bidegabekeria, berdintasunik ezak, bazterkeria, asmo gaiztoak eta etsipena eraldatu nahi ditu, jendeak eta kolektiboek berdintasuna, justizia eta elkartasuna izateko itxaropena izan dezaten; horretarako, errealitatearen azterketa kritikoak egiteko gaitasuna garatu beharko dute, jarrera bat zehaztu eta eraldaketarekiko konpromisoa hartu beharko dute, parte-hartzearen, sormenaren eta proposamenen bitartez, betiere giza eskubideen ikuspegitik begiratuta.

Zalantzarik gabe, hezkuntza-prozesuak dira, askotarikoak eta berezko logikak dituztenak, eta inplikaturako eragile guzti-guztiak hezten eta eraldatzen dira prozesu horietan. **(H)ABIAN 2030** strategiarentzat, Garapenerako Hezkuntzatik (GH) Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako (GEH) trantsizioaren sena honako esparru hau bultzatzea izango da datozen urteotan eta 2030. urtera arte:

Honelako GEH: pentsamendu kritikoa eragiten duena, pertsona kontzienteak, ahaldunduak eta arduratsuak sustatzen dituena gizarteari, bizitzari berari eta bizi diren inguruneari dagokienez, eta hartara, bizi dugun errealitatea eraldatzea lortu nahi duen herritartasun globala eratzen duena.

Era berean, emantzipaziorako ikaskuntza sustatzen duen GEH, jarduteko eta eraldatzeko gaitasuna indartzen duena; tokikoan txertatuta eta globalarekin konektatuta, maila indibidual eta kolektiboan. Horrek esan nahi du honako hauek egin behar direla: (1) mendekotasunak eta asimetriak gainditzea; (2) bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunean sinestea; (3) jarduteko eta komunikatzeko gaitasunak garatzea; eta (4) justizia, aniztasuna, bizitzen jasangarritasuna eta ekitatearen alde egitea, egungo sistemaren ordez beste batzuk sortu eta sustatuta.

Horretarako, parte hartzeko estrategiak eta egungo erronkei erantzuteko gaitasunak garatzea ahalbidetu behar da, prozesuetan harremanen dimentsioa, subjektibotasuna eta alderdi afektibo-emozionala txertatu behar da, gatazkak indarkeriarik erabili gabe konpondu eta gainditu behar dira eta aniztasunak kudeatu behar dira.

Azterketa eta hausnarketa kritikoak egiten dituzten pertsona eta kolektiboak lortuz, norbanakoetan nahiz gizartean eraldaketak eragin nahi dituzten pertsona eta kolektiboak, eta haien proposamenetan eta harremanak izateko moduetan eskubideak, erantzukizunak, zainketak, aniztasuna eta lankidetzatza txertatzen dituztenak.

GEHren esparru hori, testuinguruan identifikatutako erronkak eta Garapenerako Hezkuntzatik (GH) Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzarako (GEH) trantsizioko elementuak abiapuntu hartuta, **(H)ABIAN 2030** estrategian GEHren sei elementu nagusi biltzen dira. Bultzatu nahi dugun lanaren itsasoan gure itsasargi izango dira sei elementu horiek. Elementuetako zenbait Garapenerako Hezkuntzaren beste belaunaldi batzuetan ere egon dira baina estrategia honetan garrantzi handiagoa eman nahi diegu. Era berean, beste elementu batzuek ere garrantzi handiagoa lortu nahi dute prozesu honetan, hala nola, tokiko-global ikuspegiak eta eskubideen ikuspegiak. Eta hein batean berria den elementu bat txertatu da: agenteen arteko erantzunkidetasuna nork bere gain hartzea.



GEHk subjektu protagonistak behar eta sustatzen ditu, jakintza eta jardunbideak produzitzen dituzten subjektuak, eta jakintza eta jardunbide horiei buruz beste pertsona eta kolektibo batzuekin hitz egiten dutenak alternatibak bilatzeko prestakuntza-prozesuetan, intzidentzia-prozesuetan, komunikazio-prozesuetan eta mobilizazio-prozesuetan. Gure ustez, honako hauek dira subjektu: (i) desberdintasun-egoeretan pertsona eta kolektibo bakoitzak betetzen duen eginkizunaz eta eginkizun horrek eragiten dituen ondorioez jabetzeko prozesu kritikoa egin dutenak; (ii) tokiko testuinguruan eta testuinguru globalean gertatzen dena interpretatzeko gaitasuna garatu dutenak; (iii) eraldatzeko borondatea dutenak, pertsona bakoitza bere errealitatearen protagonista bihur dadin; eta (iv) beste batzuekin batera, errealitatea eraldatzeko ekintza eta prozesu zehatzak sortzea sustatzen dutenak. Parte hartzeko garaian desberdintasun-egoeran dauden subjektuei bereziki erreparatuko diegu: haur, gazte, emakume eta kolektibo kalteberei.

GEHren esparruan, hiru elementuak indar handia hartu dute eta hezkuntza-prozesuak bultzatzeko abiapuntu izango diren ikuspegiekin lotuta daude: ikuspegi politiko-pedagogikoekin, eskubideen ikuspegiarekin eta tokiko-global ikuspegiarekin. Hori horrela


izanik, subjektuak dira garrantzitsuena, hau da, GEHko prozesuetan nork parte hartzen duen, baina prozesu horiek nola sortzen diren eta nola laguntzen diren ere bereziki zaindu behar da, prozesuok benetan eraldatzaileak izatea lortu nahi badugu.

GEHko proposamen honek pertsona, kolektibo eta erakunde guztiei dei egiten die lan koordinatua eta partekatua premiatzat har dezaten, hezkuntza-prozesuetatik abiatuta benetan eraldaketak sustatzeko. Agente eta subjektu bakoitza erantzunkidea da ekintzak eta ekarpenak egiteko, betiere GEH errealitate izan dadin.

Azkenik, **(H)ABIAN 2030** estrategiak etengabeko ikaskuntza-prozesuarekin jarraitzea gonbidatzen gaitu, eta horretarako, jada bizi izandako esperientzia eta jardunbideak berraztertu, horien gainean hausnartu eta horietatik ikasi egin behar dugu, oraingo eta etorkizuneko esperientzia eta jardunbideak aberastu eta hobetzeko.

3.2. 6 indar-ideia orientagarriak

Aurreko atalean aipatutako GEH benetako jardunbidea izan dadin, **(H)ABIAN 2030** estrategiak hainbat indar-ideia ditu eta ideia horiek orientagarri izan daitezke prozesu hori bultzatzeko beharrezkoak diren lehentasun, jardunbide eta erabakiak zehaztean. 6 ideia dira, GEHren lehen aipatutako elementuekin estu-estu lotuta dauden ideiak, baina elementu horiek nola indartu eta nola gauzatu zehaztea dute xede.



1. Herritartasun global jasangarri eta bidezkoaren alternatibak lortu nahi dituzten eta eratzen dituzten subjektuei laguntzea

(H)ABIAN 2030 estrategian, egungo botere-erlazioetan, errealitatean eta norberarengan eraldaketak egitea proposatzen duten subjektuen alde egiten dugu.

Subjektu horiei laguntzeko:

1. Pertsona eta kolektibo bakoitzak betetzen duen eginkizunaz eta rolaz jabetzeko eta eginkizun eta rol horrek pertsona bakoitzarengan, beste pertsonengan, gizaterian eta naturan eragiten dituen ondorioez jabetzeko prozesu kritikoak sustatu behar dira.
2. Tokiko testuinguruan eta testuinguru globalean gertatzen dena interpretatzeko gaitasuna garatzeko aukera emango duten tresnak eta proposamenak ahalbidetu behar dira.
3. Eraldatzeko borondatearekin bat egin eta borondate hori indartu egin behar da, pertsona bakoitza bere errealitatearen protagonista bihurtu dadin.
4. Herritartasun global jasangarri eta bidezkoaren alternatibak ezagutzeko eta horien alde egiteko interesa eta kezka sorrarazi behar da.
5. Beste batzuekin batera, errealitatea eraldatzeko ekintza eta prozesu zehatzak garatu behar dira. Kontzientziazteko, prestakuntzako, ikerketako, intzidentziako, komunikazioko eta mobilizazioko ekimenak.
6. Herritartasun global jasangarri eta bidezko horrekin koherenteak diren erakunde eta mugimenduak sortzen lagundu behar da.

2. GEHren ikuspegi politiko-pedagogikoak txerta daitezen sustatzea eta indartzea

GEHn funtsezko eginkizuna betetzen du hezkuntza-prozesu horien eraldaketa-asmoak, ikaskuntza-prozesuak gertatzeko moduak, baita metodologiek ere. Horregatik, hezkuntza-ikuspegi horrekin bat datozen ikuspegi etiko-politikoak eta ikuspegi pedagogikoak identifikatu eta irudikatu behar dira gaur egungo testuinguruan. Hezkuntza-proposamenetan pedagogia kritikoak, parte-hartzean oinarritzen direnak eta sozio-afektiboak –herri-hezkuntzarekin lotutakoak– txertatu behar dira, beste hainbat ikuspegirekin batera: kulturartekoa, feminista eta bizitzaren jasangarritasunari dagokiona, aniztasunak kudeatzekoa, zapalkuntzen interseksionalitateari dagokiona...

Ikuspegi politiko-pedagogiko horiek praktikan jartzeko:

1. Errealitatea modu kritikoan aztertu, ulertu eta argudiatzea ahalbidetu behar da, askotariko jakintza eta kontzeptuen bitartez.
2. Subjektibotasuna errealitatea ulertzeko eta eraldatzeko prozesuaren barruan txertatu behar da, loturei eta harremanen alderdiaren garrantziari balioa eman, eta sentimenduak eta enpatia modu osasungarrian adierazi, onartu eta normalizatu behar dira.
3. Zapalkuntzen interseksionalitatea (sexu-nortasunaren, generoaren, mailaren, jatorriaren... arabera zapalkuntza) eta aniztasunen onarpen eta harrera txertatzeko trebetasun, abilezia, gaitasun eta elementu kontzeptualak garatu behar dira.
4. Ahaldundze indibidual eta kolektiboari lagundu behar zaio, norberak gizarte-erlaldaketako prozesuetan duen rola bere gain har dezan, botere-erlazioen azterketatik eta sare-lanetik abiatuta, erantzunkidetasunaren printzipioa onartuz.
5. Bizitzarako jarrera, balio eta trebetasunak sustatu behar dira, testuinguru presentzialean nahiz birtualean.
6. Balio eta ikuspegi horiek pertsonen eta erakundeen eguneroko bizimoduan praktikan jartzea bultzatu behar da.

3. Eskubideen ikuspegia txerta dadin sustatzea eta indartzea

Giza eskubideak sustatzea eta lortzea GEHko esku-hartzeen erreferente bihurtu dira. Horregatik, GEHko jardunetan, eskubide eta betebeharren titularrak zeintzuk diren identifikatu behar da eta bi horien gaitasunak indartzen lagundu behar da; lehenengo kasuan, eskubideak aldarrikatu ahal izan ditzaten eta, bigarrean, babesten, sustatzen eta betetzen direla bermatzeko. Eskubideen ikuspegiaren erreferente dira unibertsaltasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta horien ondorioz, gizartean baztertuta dauden edo egoera ahulean dauden taldeei zuzendutako ekintzek izango dute lehentasuna. Besteak beste, ikuspegi honen esparruan honako printzipio hauek nabarmenduko ditugu: eskubideak benetan gauzatzea, batik bat, baztertutako edo egoera ahuleko taldeetan; eskubide guztien integritasuna eta elkarrekiko mendetasuna, eskubideen titularren parte-hartze aktiboa, eta betebeharren titularren kontu-ematea. Eskubide eta betebeharrak hauek baliatzeko, eskubide horiek bermatu eta betearaziko dituzten erakundeak behar ditugu; eskubideak sustatu, horien jarraipena egin eta, urraketarik gertatuz gero, salaketak egingo dituzten erakundeak; urraketak pairatu dituztenak beren eskubideen protagonista eta defendatzaile izan daitezen sustatzeko gaitasuna izango duten erakundeak. GEH sustatzen duten erakundeek haiekin lan egiten duten pertsona guztiei erakunde horietarako sarbidea izango dutela bermatu behar diete.

Eskubideen ikuspegia txertatzeko:

1. Eskubideen ikuspegi horretatik begiratuta bideratu behar da hausnarketa eta jardunbide oro.
2. Eskubideen integritasuna eta aniztasuna onartu behar da: eskubide zibil eta politikoak, sozialak, ekonomikoak eta kultura-arlokoak, elkartasun-eskubidea eta, bereziki, ingurumen-eskubidea. Eskubide horiek zentzua hartzen dute osotasunean planteatzen direnean.
3. Zenbait kolektibok eskatzen duten arreta berezia eman egin behar da; horretarako, haurren eskubideak, emakumeen eskubideak eta eskubide kolektiboak berariaz sustatu behar dira.
4. Pertsona guztiak eskubide eta betebeharren subjektu direla onartu behar da, eskubide horiek testuinguru guztietan errespetatu daitezen erantzukizun zehatz batzuk ere badituztela.
5. Pertsona, erakunde eta komunitateen gaitasunak sustatu behar dira ahalduntze-prozesuen bitartez eta egun dauden botere-erlazioak ezagututa.
6. Pertsona guztien eskubideak errespetatuko direla bermatzeaz gain, eskubideen balizko urraketak kudeatzeko estrategiak ere izango dituzten erakunde eta elkarteak sustatu behar dira.

4. Tokiko-global ikuspegia txerta dadin sustatzea eta indartzea

Pertsonen, gizartearen eta ingurumenaren arteko elkarrekiko mendetasuna gero eta nabariagoa izaki, gero eta argiago ikusten da tokikoaren eta globalaren artean lotura dagoela eta lotura hori beharrezkoa dela. Pertsonen eta erakundeen berezko jardun-eremua tokian tokiko testuinguru da; testuinguru hori, batik bat, ezagutzen dute eta testuinguru hori eraldatzeko gaitasun zuzenena dute. Alabaina, gaur egun, tokiko testuinguruetan gero eta eragin handiagoa dute testuinguru globaletan hartutako erabaki eta jardunek, eta erabaki eta jardun global horiek batzuetan tokikoak garatzeko lagungarri dira, baina beste batzuetan muga izan daitezke. Tokiko testuinguruari begiratzean eta tokiko testuinguruan lan egitean ez bazaio testuinguru globalarekiko loturari erreparatzen, ikuspegi eta jardun partzialak, mugatuak eta desberdintasun-sortzaileak gara daitezke, edo hirugarren pertsonen edo lurraren

eskubideak urratzen dituztenak. Tokiko-global loturak ahalbidetzen du justiziaren eta berdintasunaren alde egitea, askotariko pertsona eta kolektiboen eskari eta borrokak aintzat hartuta, inor atzean utzi gabe, ahal dela; eta agenda komunak sortzea ere ahalbidetzen du, tokiko espazioetan, baita maila globalean ere, prozesuak indartze aldera.

Harreman edo erlazioak tokiko-global ikuspuntutik begiratuta proposatzeak lankidetzaren GEH logika klasikoa urratzea dakar, eta Ipar-Hego binomioa gainditzea. Testuinguruan gertatu diren aldaketek zera adierazten dute, **(H)ABIAN 2030** estrategiak eragin nahi duen errealitateetan GEHko prozesuak abiarazteko erronkari heldu behar zaiola.

Tokiko-global ikuspegia txertatzeko:

1. Tokiko jardunek maila globalean zer nolako eragina duten aztertu behar da, baita jardun globalek tokiko mailan ere, eskubide eta erantzukizunen aldetik eta errealitate eta gaiak –tokikoak eta globalak– konektatuta.
2. Ikuspuntu etnozentriko eta heteronormatiboak gainditu behar dira, jakintza eta jardunbideak askotarikoak direla onartuta simetria-planoan, eta desberdintasunak errespetatuta.
3. Eskubide eta erantzukizunen titularrak identifikatu behar dira, eta tokiko testuinguruetan nahiz testuinguru globaletan ekintzak egin.
4. Tokiko eremuan eta eremu globalean gertatzen diren botere-erlazioak eraldatu behar dira.
5. GEH eta lankidetzaren helburu berarekin erlazionatzen dituzten tresnak sortu eta indartu behar dira, eta subjektuak hezteko eta sortzeko ekimenak ahalbidetu behar dira hainbat errealitate geografikotan, bai EAEn, bai EAetik kanpo.
6. Tokiko elkarte eta mugimenduak indartu behar dira, eta ikuspuntu globalak izatea ahalbidetuko dieten aliantzak eta ikuspegia bultzatu.

5. Agente guztien arteko erantzukidetasuna sustatzea, batik bat, erakunde publikoena

Otsailaren 22ko 1/2007 Legearen arabera, “hauek dira lankidetzaren eragileak: garapenerako lankidetzako zereginekin lotura berezia duten entitate publiko zein pribatuak”. Horrekin lotuta, eragile edo agente guztiak –GGKEak, hezkuntza-komunitatea, Berritzeguneak, unibertsitateak, komunikabideak, gizarte-mugimenduak, kolektibo feministak, baztertutako biztanleen kolektiboak, etorkinen kolektiboak– gonbidatzen ditugu **(H)ABIAN 2030** estrategia garatzeko ekarpenak egitera, bakoitzaren berezitasunak aintzat hartuta.

Baina erakunde publikoek beren gain hartu behar duten rol berria bereziki nabarmendu nahi dugu, orain arte izan duten finantzaketa-rola alde batera utzita. Estrategia honekin, erakunde publikoek GEHko ekintzak garatzen protagonismo eta erantzukizun handiagoa izatea espero dugu, eta GEH politika publikotzat har dezaten.

Hori lortzeko, kasuan kasu, honako hauek egiten hasi edo jarraitu behar da:

1. Erakunde bakoitzak bere rola eta erantzukizuna onartu behar du erakunde hezitzaile den aldetik.
2. GEH politika publiko moduan sendotu behar da lankidetzako erakundeetan.
3. Politika publikoak beste departamentu edo sail batzuekiko koherente izatea sustatu behar da erakunde publikoetatik, lehentasuna emanaz hezkuntzarekin, gazteekin, kontsumoarekin, ingurumenarekin, garapen komunitarioarekin, immigrazioarekin eta giza eskubideekin lotura dutenei.
4. Erakundearteko koordinaziorako guneak sortu behar dira, batik bat, tokiko eremuan, GEHko ekimenak garatzeko.

5. Komunikazioko, hausnarketako eta erosketa publiko sozial eta jasagarria egiteko programa edo ekimen propioak garatu behar dira.
6. Erakundeen eta gizarte zibilaren artean lankidetzan jardun behar da batera lan egiteko guneak identifikatzeko, baita agente bakoitzarentzako gune espezifikoak bilatzeko ere.

6. Etengabeko ikaskuntza izatea erreferentzia

GEHko hamaika esperientzia ari dira garatzen hainbat testuingurutan, eta hezkuntza-jardunbideak hobetzeko lagungarriak izan daitezke. Ikaskuntza sustatzeko:

1. Egindako jardunen memoria prestatu behar da, eta proposatutako helburu eta adierazleak erregistratu eta jarraipena egin behar zaie.
2. Ebaluazio eta sistematizazioak egin behar dira, GEHko prozesuei buruzko ikaskuntza sortzeko.
3. Identifikatutako ikaskuntzak ezagutarazi egin behar dira eta ikaskuntza horiek partekatzeko guneak sortu.
4. Identifikatutako ikaskuntzek eragiten dituzten aldaketak jardunbideetan aplikatzea ahalbidetu behar da.
5. Erakundeen eraldaketa ahalbidetu behar da, betiere sortutako ikaskuntzak izanik erreferentzia.
6. Egindako lorpen, aurrerapen eta ikaskuntzak goraiatu egin behar dira.

3.3. Lortu nahi ditugun 16 aldaketak

(H)ABIAN 2030 estrategia abiarazi zenean eraldaketak eta aldaketak eragiteko asmoz sortu zen. Eraldaketa eta aldaketa horiek eragina dute bai hezkuntza-jarduerak egiten dituenarengan, baita jarduera horietan parte hartzen duenarengan ere, biak ere irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuen subjektu direlako. Estrategia honetan, aurkeztutako hezkuntza-hurbilketaren eta indar-ideien ondoriozko 16 aldaketa lortzen lagundu nahi dugu. (H)ABIAN 2030 estrategia justiziako, berdintasuneko eta jasangarritasuneko alternatibak eratuko dituzten subjektuak sendotzen lagunduko duten aldaketak sorrarazteko pentsatua dago. Horretarako, aldaketak egin behar dira GEHren subjektu eta agenteengan, erakunde publikoetan eta GEHren ikusmoldean, eta GEH hezkuntza-jardunbide koherenteetan gauzatu behar da.



Aldaketak GEHren ikusmoldean

- 1. aldaketa.** GEHk (H)ABIAN 2030 strategiarekin koherenteak diren ikuspegi politiko-pedagogikoak izatea.
- 2. aldaketa.** GEHk ikuspegi etnozentriko, heteronormatibo eta antropozentrikoak gainditzea, eta askotariko subjektu eta agenteak inplikatzea.
- 3. aldaketa.** Eskubideen ikuspegia eta tokiko-global ikuspegia GEHren funtsezko ezaugarria izatea.

4. aldaketa. Garatzen den ikaskuntza-kulturak jardunbideak eralda ditzala eta GEH indar dezala, ahal dela, ekintzarako prestakuntza, ekintza eraldatzaileak eta erakunde hezitzaileen rola indartzeari dagokionez.

Aldaketak hezkuntza-jardunbideetan

5. aldaketa. GEHren hezkuntza-jardunbideek ikuspegi globala duten tokiko jardunak eta eskubideen ikuspegitik begiratutako tokiko garapenak izatea.

6. aldaketa. GEHren jardunbideetan GEH eta Lankidetzaren helburu berarekin eta partekatutako gaiekin erlazionatzea.

7. aldaketa. GEHren jardunbideetan herritartasun globaleko alternatibak bilatzeko azterketa kritikoa egitea.

8. aldaketa. GEHren jardunbideek pertsona eta kolektiboen jarduna eta inplikazioa sustatzea alternatiba jasangarri, solidario eta bidezkoak abiarazteko.

Aldaketak pertsona eta kolektiboetan

9. aldaketa. Pertsona eta kolektiboek jarrera, trebetasun eta gaitasunak garatzea errealitate tokiko-globalari ikuspegi zabal eta kritiko batetik begira diezaioten.

10. aldaketa. GEHko pertsona eta kolektiboek beren protagonismoa beren gain hartzea, desberdintasunak eragiten dituzten arazoiei alternatibak biltzen banaka eta kolektiboan jardun dezaten, eta gizartea inplikatze eta mobilizatzeko gai izan daitezen.

11. aldaketa. GHEko pertsona eta kolektiboek ekimen eta aliantza globalak egituratzea baina helburu berdinekin, eta horretarako estrategia, eragile eta gaiak identifikatzea.

12. aldaketa. Pertsona eta kolektiboek ikaskuntza-prozesuak abiaraztea norberaren hezkuntza-jardunbideetan oinarrituta, eta lortutako ikaskuntzak prozesu berrietan txerta ditzatela eta parteka ditzatela.

Aldaketak erakunde publikoetan

13. aldaketa. Erakunde publikoek GEHrekin koherenteak diren jardunbideak txertatzea eguneroko jardunean.


14. aldaketa. Erakunde bakoitzaren gainerako politikekin koherentea izango den GEHko politika publikoa finkatzea.

15. aldaketa. (H)ABIAN 2030 estrategiari atxikitako lankidetzako erakunde publikoen GEHko politikak koherenteak izatea.

16. aldaketa. GIHen agenda bat zehazten laguntzea Euskaditik, giza eskubideen ikuspegitik begiratuta.



(H)ABIAN 2030
estrategia hedatzea,
jarraipena egitea eta
ebaluatzea



4.1. (H)ABIAN 2030 estrategia hedatzea

(H)ABIAN 2030 estrategiak GEHko euskal estrategia izan nahi du. Diseinutik hasita, estrategia eratzeko ahalik eta agente eta erakunde gehien inplikatzeko lan egin da, horiek guztiek bere egin dezaten gero. Erakunde eta agente nahiz subjektuen parte-hartzea garrantzitsua eta askotarikoa izan den arren, estrategia hau hedatzea eta estrategia honekiko atxikimenduak sortzea oso garrantzitsuak dira, GEHren arloan Euskadin eta Euskaditik lan egiten duten gehienek estrategia bihur dadin benetan.

Hortaz, hedapen-lan handia egin behar dugu inplikaturako erakunde, agente edo subjektu bakoitzak bere jardun, hausnarketa eta ikaskuntzen ekarpena egin diezaion (H)ABIAN 2030 strategiari. Estrategiaren berri ematea eta atxikimenduak sortzea guztion egitekoa da, eta aldi berean, norberak ekarpenak egin beharko dizkio (H)ABIAN 2030 strategiari bere errealitate eta espezifikotasun propioetik.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, (H)ABIAN 2030 strategiaren berri emateko eta atxikimenduak lortzeko materiala sortzeko konpromisoa hartu du. Dokumentu honen eranskinean berau berresteko proposamen bat dago eta, oraingoz, GLEA izango da atxikimenduak bildu eta ezagutaraziko dituenak.

Atxikimendua sinatzen duenak bat egiten du (H)ABIAN 2030 estrategiarekin, eta horren ondorioz, estrategia hori –alderdi zehatzetan eta tokiko eremuan– garatzeko jarduerak egiten lagunduko duten mekanismo propioak –estrategiak, plan estrategikoak edo gida-planak, baita ekintza-planetan eta aurrekontuetan egindako zehaztapenak ere– ezartzeko konpromisoa hartzen du. Jardun horien jarraipena eta ebaluazioa egingo da, (H)ABIAN 2030 strategiari eragindako aldaketak eta barnerrazte-maila zenbaterainokoak diren jakiteko. Erantsitako grafikoan, hartzen diren konpromisoak eta aurrez proposaturako sekuentzia ikus daitezke.

8 konpromisoak

1. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH) bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, pentsamendu kritikoa eragiten duena, pertsona kontzienteak, ahaldunduak eta arduratsuak sustatzen dituen gizarteari eta bizitzari berari dagokienez, eta hartara, bizi dugun errealitatea eraldatzea lortu nahi duen herritartasun globala eratzten duena.
2. Gure ikuspegi pedagogikoak kritikoak eta sozio-afektiboak izango dira, parte-hartzea bultzatuko dute, pedagogia feministak txertatuko dituzte, bizitzen jasangarritasuna eta subjektibotasuna txertatuko dituzte, baita dibertsitateen kudeaketa eta zapalkuntzen interseksionalitatea ere.
3. Eskubideen ikuspegia funtsezko elementua izango da gure proposamen pedagogikoetan, eta eskubide eta erantzukizunak identifikatuko ditugu
4. Errealitate desberdinen arteko elkarren mendekotasuna eta lotura izango dira gure jardunbideak sustatuko dituzten elementuak.
5. **(H)ABIAN 2030** estrategiak proposatutako GEHko strategiari ekarpenak egiteko erantzunkidetasuna geure egiten dugu, ekintza-plan, jardun eta baliabide espezifikoien bitartez.
6. Etengabeko ikaskuntza sustatuko dugu geure jardunbideak aztertuta.
7. GEHko gure esperientzia eta ikaskuntzak partekatzeko konpromisoa hartzen dugu, gure jardun eta proposamenak hobetzeko.
8. **(H)ABIAN 2030** strategiaren esparruan sortzen diren jarraipen- eta ebaluazio-batzordeetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu.

Estrategiak/Ekintza-planak

Jarraipena

4.2. Jarraipena eta ebaluazioa

Erakunde, subjektu eta agente asko daude **(H)ABIAN 2030** estrategian inplikaturik, eta haiekin guztiekin batera egin nahi dugu egiten diren urrats guztien jarraipena eta ebaluazioa.

Estrategia honen jarraipena eta ebaluazioa egitean, lortu nahi ditugun 16 aldaketei eta aldaketak lortzeko bide horretan bideratuko gaituzten 6 indar-ideiei erreparatuko diegu. Horrek esan nahi du **(H)ABIAN 2030** estrategia gauzatzea ahalbidetuko duten jardunak – espezifikoak izan daitezke, eragileen arabera– identifikatzeko eta abiarazteko lan egin beharko dugula, elkarrekin. Jarraipena eta ebaluazioa egitearen azken helburua zera da, subjektu eta agenteek beren jardunbidean aplikatzeko moduko ikaskuntzak eta hobekuntza-ildoak lortzea.

Alde batetik, jarraipen-batzorde bat sortuko da **(H)ABIAN 2030** strategiari atxikitakoan artean. Batzorde hori protagonista nagusi izango da **(H)ABIAN 2030** strategiaren jarraipena egitean, erakunde eta agente horiek konpromisoak lortzearen alde arituko baitira lanean, eta jarraipen egokia egiteko informazioa eta dokumentazioa eskaini baitezakete. Ildo beretik, **(H)ABIAN 2030** estrategia gauzatzen izandako aurrerapen nagusiak bi urtean behin berrikusiko dira; horrek ez du esan nahi batzorde hori ez denik aldizka bilduko prozesua gertuagotik jarraitzeko, esperientziak partekatzeko eta strategiaren garapenean ikaskuntzak sortzeko. Egiten diren jarraipen-prozesu eta ebaluazioak bildu eta ordenatzeko konpromisoa hartzen du GLEAk, baita jendaurrean partekatzekoa ere. Ildo beretik, eta beheko irudian ikus daitekeenez, **(H)ABIAN 2030** strategiak lortutako atxikimendu eta aurrerapenen jarraipena egitea proposatzen da, bi urtean behin.

Era berean, **(H)ABIAN 2030** estrategiak irauten duen bitartean hiru ebaluazio egitea proposatzen da: bata hasieran, bestea erdian eta azkena amaieran. Ebaluazio horiek egiteko, politika publikoak ebaluatzen esperientzia duten pertsona edo erakundeen laguntza izango dugu, eta aldaketen xede diren pertsona eta kolektiboen iritzi eta balioespenak ere bilduko ditugu: subjektuen, erakundeen eta, oro har, herritarren iritzi eta balioespenak. Lehenengo ebaluazioaren bitartez, oinarrizko ildo bat mugatuko dugu. Bigarrenaren bitartez, zenbait jardun indartu eta, behar izanez gero, beste batzuk bideratu ahal izango ditugu. Eta hirugarren ebaluazioaren bitartez, prozesu honetan lortutako aldaketak aurkeztuko ditugu.

(H)ABIAN 2030 estrategiaren jarraipena	Bi urtean behin
---	-----------------

(H)ABIAN 2030 estrategiaren ebaluazioa	Hasierakoa Tartekoa Amaierakoa
---	--------------------------------------



1. eranskina. **Atxikimendua**

(H)ABIAN 2030 estrategiarekin hartutako 8 konpromisoak

1

Gizarte-eraldaketarako hezkuntza (GEH) bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, pentsamendu kritikoa eragiten duena, pertsona kontzienteak, ahaldunduak eta arduratsuak sustatzen dituena gizarteari eta bizitzari berari dagokienez, eta hartara, bizi dugun errealitatea eraldatzea lortu nahi duen herritartasun globala eratzen duena.

2

Gure ikuspegi pedagogikoak kritikoak eta sozio-afektiboak izango dira, parte-hartzea bultzatuko dute, pedagogia feministak txertatuko dituzte, bizitzen jasangarritasuna eta subjektibotasuna txertatuko dituzte, baita dibertsitateen kudeaketa eta zapalkuntzen interseksionalitatea ere.

3

Eskubideen ikuspegia funtsezko elementua izango da gure proposamen pedagogikoetan, eta eskubide eta erantzukizunak identifikatuko ditugu.

4

Errealitate desberdinen arteko elkarren mendekotasuna eta lotura izango dira gure jardunbideak sustatuko dituzten elementuak.

5

(H)ABIAN 2030 estrategiak proposatutako GEHko estrategiari ekarpenak egiteko erantzunkidetasuna geure egiten dugu, ekintza-plan, jardun eta baliabide espezifikoaren bitartez.

6

Etengabeko ikaskuntza sustatuko dugu geure jardunbideak aztertuta.

7

GEHko gure esperientzia eta ikaskuntzak partekatzeko konpromisoa hartzen dugu, gure jardun eta proposamenak hobetzeko.

8

(H)ABIAN 2030 estrategiaren esparruan sortzen diren jarraipen- eta ebaluazio-batzordeetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dugu.